



***Petronorren
etorkizuna eraikitzen***

URTEKO TXOSTENA

2025

AURKIBIDEA

> PETRONORREN ETORKIZUNA ERAIKITZEN	03
> PETRONOR ZENBAKIETAN	13
> LEHIAKORTASUNAREN ETA NEGOZIO BERRIEN ERAGILEAK	24
> GOBERNANTZA	40
> DATU EKONOMIKOAK	42
> ERANSKINAK	48

EBk ezarritako araudi-mugetatik kanpo fabrikatutako produktuak —kasu batzuetan, betebeharrak fiskalak urratuz— inportatzen dituzten operadoreen lehiak markatutako ingurune zail batean, Petronorrek bere ibilbide-orri estrategikoa lantzen jarraitu du, 2025ean deskarbonizazioaren erronketara egokitzeko helburuarekin.

Bizi dugun egoera geopolitikoa zaila da eta arrisku handien eraginpean dago. Horrek zuzenean eragiten dio horniduraren ziurtasunari. Alde horretatik, Petronor eraginkor eta efiziente baten alde lan egiteko konpromisoa hartu dugu, hori baita hornidura-bermearen parte izateko modu bakarra.

Oil&gasaren eta haren produktu eratorrien horniduraren ziurtasunik ezak mugikortasunaz haraindiko sektore garrantzitsuei eragiten die, hala nola nekazaritza, osasuna, teknologia eta industria, esplorazio espaziala eta zientziari. Beraz, beste energia-iturri batzuek bezalaxe, gure energia-entresak badu zeregina, gizartearentzat eta gizartea osatzen duten pertsonentzat beharrezkoa den energia bermatu ahal izateko.



Petronorrentzat deskarbonizazioa teknologiarekiko eta industria-jardunbide onenekiko konpromisoa da, gizartearen zerbitzura dagoen oso enpresa lehiakorra izaten jarraitu ahal izateko. Horrela bakarrik iritsiko gara etorkizunera. Horrela soilik jarraituko dugu EAEko industriaren eta ekonomiaren eragile garrantzitsua izaten.

Europako Atlantikoko aldean dagoen industria-instalazioa gara, eta, ondorioz, Europar Batasuneko energia-politikaren bilakaerak kezkatzen eta arduratzen gaitu. Zentzu horretan, Europar Batasun Energetikoak, Akitania Berriarekin dugun harremana sendotzeak eta Batasunaren ondarea ordena geopolitiko berrira egokitzeak eragina dute guregan, eta, horregatik, zehatzak eta malguak izan behar dugu datozen urteetarako dugun estrategian. Konfiantza osoa dugu EBren sortzaileen espirituaren oinarrian, duela 70 urte baino gehiago egin zen Messinako Konferentzian berretsian.

2025a urte iragankorra izan da. Instalazioa optimizatzea izan du helburu, eskura dagoen teknologiarik onena integratzeko, eta, hala, ekoizpen-prozesua eraginkorra eta efizientea izatea lortu eta hiru ardatz nagusien (ekoizpena, mantentze-lanak eta segurtasuna/fidagarritasuna) jardunbide onenetan sakontzeko. Etorkizuna bermatuko duten inbertsioak egiteko beharrezkoak diren finantza-baliabideak sortzera behartzen gaitu orainak.



Ez dago etorkizunik orainaldi arduratsurik gabe

Horregatik, 514 milioi euroko inbertsio-programa bat garatzen ari gara 2029rako, hiru hidrogeno-elektrolizagailuetan (2,5 MW/10 MW/100 MW), erregai sintetikoak ekoizteko demostrazio-instalazioan, agregakin sintetikoak ekoizteko instalazioan eta pirolisiaren proiektuan oinarrituta.

Halaber, hidrogeno berdea teknologia garrantzitsuen eta mugako teknologien bidez fabrikatzeko kostuen murrizketan sakontzeko helburuarekin jarraitzen dugu.

Hori guztia ez litzateke posible izango EEarekin eta Bizkaiko Foru Aldundiko zerga-administrazioarekin lankidetzan estuan aritu ezean. EBko herrialde dinamikoenen pareko zerga-esparru berritzaileak sortzeko konpromisoa hartu dute, eta Europako eta mundu osoko ingurune lehiakorrean EAEko industriaren etorkizuna erraztuko duten osagai teknologiko handiko inbertsioetara bideratuta daude.

Erantzukizuna guztiona da, ez akziodunena bakarrik. Izan ere, etorkizuna zalantzarik izango da Petronorren giza talde osoaren eta administrazio publiko guztien konpromiso irmorik gabe. Jarduera hori garatzeko, beharrezkoa da prestakuntza sendoa, teknologia eta industria-enpresen ekosistema bat izatea; horrenbestez, guztiok bat egin, eta horretarako gaitasunak emango dizkigun prestakuntza-, enpresa- eta teknologia-sistema bat osatu behar dugu.



2025ean hainbat ikaskuntza izan ditugu, besteak beste:

- 1.- Petronorren giza taldea kohesionatzeko lanean jarraitu behar da, partaidetza arduratsurik gabe etorkizuna zalantzarikoa delako.
- 2.- Giza talde bikaina dugu, hazten ari da eta dena ematen du ezohiko egoerak direla-eta hala behar denean.
3. - Ezin dugu etorkizunerako gogoia galdu, espiritu hori gabe gainbehera berrmatuta dagoelako.

Azkenik, administrazio-kontseiluaren eta nire izenean, eskerrak eman nahi dizkiet Petronorreko kide guztiei egin duten lanagatik. Giza talde kohesionatu eta prestatuak bakarrik berma dezake ETORKIZUNA.

EMILIANO LÓPEZ ATXURRA

Petronorreko presidentea





2025a urte konplexua izan da. Alde batetik, guztiz ezohiko egoera bati egin diogu aurre, apirileko itzalaldiari, hain zuzen ere, eta bestetik, hain ezohikoa ez den beste bati, urteko azken hiru hilabeteetako grebari. Hala eta guztiz ere, tinko eutsi diogu enpresa lehiakorragoa, seguruagoa eta jasangarriagoa izatea lortzeko konpromisoari, eta findegi konbentzionala izatetik energia anitzeko konpainia deskarbonizatua izatera eboluzionatzeko aukera emango diguten negozio berriak garatzen jarraitzeko konpromisoari.

Eragiketen bikaintasuna lortzeko etengabeko ahalegina egin dugulako hobetu dugu lehiakortasuna. Aurten, ekoizpen-eskema optimizatu dugu, propano-propileno splitter berri bat gehituz —2026an jarriko da martxan—, gasolinen ekoizpena maximizatuz eta hidrogeno-sarea modu efizienteagoan kudeatuz. Deskarbonizazio-proiektu garrantzitsuak ere bultzatu ditugu, hala nola 1. findegiko Petrolio Gordinaren Unitateko preflash dorrea, karbono baxuko lurrunaren ekoizpena eta P2 C1 eta TR turbinen elektrifikazioa. Horrez gain, inbentarioen kudeaketa indartu dugu ekoizpen-programa hobetzeko.

Fidagarritasunari eta mantentze-lanei dagokienez, oso emaitza positiboak lortu ditugu. Geldialdi-helburuak bete ditugu, eta erabilezintasunaren eragin ekonomikoa % 2ra murriztu dugu. Horrek 8,6 milioi euroko eragin positiboa ekarri du. Arlo horretan metatutako inbertsioa 335 milioira iritsi da azken bost urteetan. Orain, fidagarritasuna gure nortasunaren ikur gisa finkatzea da erronka. Horretarako, efizienteagoak izan behar dugu ez-produktibitateak murrizten, eraginkorragoak matxurak murrizten eta berritzaileagoak irtenbide berriak txertatzen.

Segurtasunari dagokionez, geldialdietarako ezarritako helburuak bete ditugu. Bajadun istripuen eta prozesuko gorabeheren barne-helburuak lortu ez baditugu ere, benchmark sektorialarekin alderatuta maila nabarmen altuagoetan gaude oraindik. Potentzial handiko istripuetan foku handiagoa jartzea da hurrengo urratsa. Horretarako, ikerketarako ikuspegi berri bati helduko diogu, ekoizpenerako eta mantentze-lanetarako giza faktoreetan oinarritutako akademia garatuko dugu (2025ean hasi gara horretan) eta egitura indartuko dugu, prozesuko segurtasuneko teknikari berriak txertatuta.

Pertsonak beharrezko zutabea izan dira eraldaketa-urte honetan. Aurrera egin dugu lidergoaren ereduari. Aginte-lerroaren % 70ek funtsezko gaitasunen inguruko trebakuntza jaso du; lidergo-postuen % 19,6 emakumeenak dira, eta gaitasun desberdinak dituzten pertsonak % 2,4ean integratu ditugu. Kultura-erronka nagusia lidergo aktiboa sustatzea, antolaketako efizientzia hobetzea, komunikazioa indartzea eta elkarrizketarako eta akordiorako espazioak sortzen jarraitzea da.

Berrikuntzak gure ardatz estrategikoetako bat izaten jarraitu du. Azken urteotan, garapen teknologikoa eta digitalizazioa bultzatzen dituen ekosistema eraiki dugu, ez bakarrik Petronorren barruan, baita EAEko energiaren sektorean ere. Hidrogenoaren Euskal Korridorea, Energy Intelligence Center Fundazioa edo Net Zero Basque bultzada horren isla dira. Datozen urteetarako helburua lehiakortasunera bideratutako berrikuntza finkatzea da, digitalizazioaren, instalazio autonomoaren, adimen artifizial sortzailearen, erregai berriztagarrien eta industria-deskarbonizazioan oinarritutako trakzio-proiektuen (adibidez, Hard to Zero) aldeko apustua eginez.



Finantzen ikuspegitik, 506 milioi euroko inbertsioak lortu ditugu bost proiektu estrategikotarako, kideak erakarrita, autonomia-erkidegoetako, Estatuko eta Europako laguntzak eskuratuta, eta deskarbonizazioaren eta energia-efizientziaren aldeko zerga-araubidea oinarri hartuta. Horri esker, aurrera egin dugu gure inbertsio-planean, eta kutzako irteerak murriztu ditugu. Etorkizunerako erronka *break even* delakoa murrizten jarraitzea da, antolaketa hobetzean, prozesu efizienteagoetan, kudeaketa-tresna hobetan, koordinazio-mekanismo berrietan eta aldaketaren kultura sendoagoan oinarrituta.

2025ean, **inbertsio-ahalegin** handia egin dugu. Zehazki, 217 milioi euro bideratu ditugu mantentze-lanetara, ingurumenera eta segurtasunera, azpiegiturretara eta berritzera, digitalizaziora, deskarbonizaziora, hidrogenora eta erregai sintetikoetara. Bolumen horrekin, % 48ko igoera izan dugu aurreko urtearekin alderatuta, eta, hortaz, bikaintasun-maila handia behar da proiektuak kudeatu eta gauzatzean.

2025eko Jasangarritasun Planean, ESG irizpideekin lerrokatutako 23 ekintza jaso dira, eta Nazio Batuen garapen jasangarrirako 17 helburuetatik 13 barne hartzen dituzte horiek. % 90etik gorako gauzatze-maila lortu da, Petronorrek jasangarritasunarekin duen egiturazko konpromisoa frogatuz.

Industria-proiektu berrien kasuan, aurrerapena nabarmena izan da. Sozietatearen akordioak egin ditugu pirolisiaren demostrazio-instalaziorako, 10 eta 100 MW-ko elektrolizagailuetarako, erregai sintetikoak ekoizteko demostrazio-instalaziorako eta ekoagregakinen instalaziorako. Jada hasi gara azken lau proiektu horiek eraikitzen, nahiz eta erregulazioaren testuingurua ezegonkorra izan. Instalazio horiek 2026tik 2027ra bitartean martxan jartzea da erronka. Repsol taldearen laguntzarekin, talde espezifikoak eratuko dira horiek ordezkatzeko, abian jartzeko eta jardunean mantentzeko. Demonstrazio-instalazio horiek funtsezkoak izango dira ikaskuntza maximizatzeke eta maila komertzialean eskalatzea prestatzeko.



Gure helburua dagoena ahalik eta efizienteena izatea da, demostrazio-prozesu berriak eskalatu ahal izateko. Ingurunean txertatuago dagoen Petronor batekin lortuko dugu, erabilera-eskema malguago batekin, efizientziaren eta kostuen lehen kuartiletan kokatuko gaituzten anbizio handiko planekin, instalazio autonomoago eta funtzionalago batekin eta hidrogeno eta erregai sintetikoen aitzindari gisa dugun zeregin nabarmenarekin. Hori guztia talde-lanari, proiektu partekatu bati, kultura-aldaketa sakon bati eta lidergo aktibo eta motibatzaile bati esker izango da posible.

Etorkizuna gure esku dago. Etorkizuneko Petronor eraikitzeko urrats irmoa ematera gonbidatzen zaituztet.

JOSÉ GREGORIO LUQUE

Petronorreko kontseilari delegatua

(Petronorren 2025eko Urteko Jardunaldian emandako hitzaldiaren laburpena)



ENPRESA

Energia anitzeko enpresa da, segurua eta efizientzia handikoa. Etengabeko berrikuntzarekin konprometuta dago ekoizpen- eta kudeaketa-prozesu guztietan. Bere jardueraren ondoriozko eraginak txikiagotzen dituen auzokide ona da, inguruko garapenaren eragilea eta negozio-aukeren bilaketako erreferentea.

Eraldatu egin da historian zehar, eta gaur egun bigarren eraldaketa handitik ari da igarotzen, Repsol Taldeak 2050ean zero emisio garbi izatea lortzeko helburuarekin.

ENERGIA ANITZETKOA

Soluzio energetiko onenak garatzen

SEGURUA

Ez dugu istripurik

EFIZIENTEA

Gutxiagorekin gehiago lortzen dugu

BERRITZAILEA

Gauza berdinak bestelako moduan egiten ditugu.
Bestelako gauzak egiten ditugu



JASANGARRIA

Bizilagun ona. Eraginak txikiagotzen ditugu eta inguruari garatzen laguntzen diogu.

ETENGABE ERALDATZEN

Eraldaketa-prozesu sakon bati ekin genion, 2050ean zero emisio garbi izateko konpromisoarekin.

Ikuspegia. Findegi deskarbonizaturantz



PASADO

PRESENTE

FUTURO

...hacia refinerías bajas en carbono

LANGILEAK 962
GUZTIRA PERTSONA


131 M€

EAEko ENPRESEN FAKTURAZIOA
PETRONORRI (454 ENPRESA)

**SORTUTAKO
ZERGAK 1.296 M€**

BIZKAIKO FORU OGASUNARI EMANDAKOAK

743 M€



≈ % 6,9
BILDUTAKO GUZTÍTIK


GORDIN

PROZESATUA

59,6 MILIOI
UPEL
(8,9 MILIOI TONA)

PETRONOR TRAFIKOA

11,4 MILIOI
TONA





% 37,0
BILBOKO PORTUKO
TRAFIKO GUZTITIK

337
ITSASONTZI

GASOLINA
EKOIZPENA 1,6
MILIOI TONA

GASOLIOA 3,7
MILIOI TONA





EMAITZA

ZERGAZ BARNE

27,8 M€

Munduko jarduerak egonkortasun erlatiboa izan du 2025ean, denbora luzez shock esanguratsuak izan ondoren.

International Monetary Fund funtsaren arabera (WEO, 2025eko urria), munduko hazkunde ekonomikoa % 3,2 ingurukoa izan zen 2025erako (2024an % 3,3koa izan zen), eta munduko ekoizpena potentzial-mailatik gertu egon zen, hau da, modu jasangarrian lor zitekeen, desoreka larririk sortu gabe. Eta, are garrantzitsuagoa, desinflazio-prozesuak aurrera jarraitu du, modu mailakatuagoan bada ere. 2025ean % 4,2 inguruko inflazioa proiektatu da munduan.

2025aren hasieratik, zalantza nabarmenagoak daude munduan, Estatu Batuetako administrazioak politika komertzial eta geopolitikoaren testuinguruan bultzatu duen norabide-aldaketaren ondorioz. Apirilaren 2an, AEBko gobernuak muga-zerga berriak ezarri zituen herrialde askorentzat (Europar Batasuna eta Txina barne), % 10eko gutxieneko muga-zerga unibertuala eta tasa gehigarriak aldebiko superabit handienak dituzten bazkideentzat.



BRENT
KOTIZ
AZIOA
\$/BBL

2025	2024	2023
69,10	80,76	82,64



BATEZ
BESTEKO
TRUKE
TASA

2025	2024	2023
1,12	1,08	1,08




2025ean, Brentaren batez besteko prezioa 69,1 \$/bbl-koa izan zen. Lurrunkortasun handiko urtea izan zen, eta, horren eraginez, petrolio gordina 20 dolar baino gehiagoko tartean ibili zen. Urtea gorakada handiekin hasi zen, eta urtarrilaren 15ean 82,03 \$/bbl-ko maximora iritsi zen, AEBko eta Europako tenperatura baxuen ondorioz (dieselaren eskariak gora egin zuen horregatik). Ondoren, maiatzaren 1ean, 60 \$/bbl ingururainoko beherakada izan zuen merkatuak, indar ekonomiko txikiagoaren eta tentsio komertzialen testuingurua islatuz. Prezioaren bilakaera ziurgabetasun geopolitikoak eragin zuen batez ere. Igoerak eta zuzenketak egon ziren, eta urtea 61 \$/bbl inguruko prezioarekin amaitu zen, prezioaren murrizketa orokorraren ondorioz.

Eskaintzak eragin zuen beheranzko presio handiena prezioetan, bereziki LPEE+ erakundearen ekoizpen-estrategiagatik. Apirila eta iraila bitartean, taldeak berriro merkaturatu zituen 2023ko azaroan murriztutako eguneko 2,2 milioi upelak, eta, hala, azkartu egin zen hasieran hemezortzi hilabeterako planteatu zen prozesua. Horrez gain, urritik aurrera, 2023ko apirilean kendutako eguneko 1,65 milioi upeletara itzultzen hasi zen pixkanaka. Mugimendu horiek merkatua desorekatu zuten eta prezioei eusten zieten oinarriak ahuldu zituzten, merkatuaren suspertzeko potentziala mugatua izatea eraginez.

8,00 \$




BATEZ BESTEKO MARJINA
UPELEKOA
2025



6,30 \$

BATEZ BESTEKO MARJINA
UPELEKOA 2024





SARRERA

EKOIZPEN PROZESUA


IRTEERA

Jarduera. Hainbat jatorritako gordin prozesatua




Errusiatik etorritako gordinaren prozesamendua % 37koa zen 2021ean; % 3ra jaitsi zen 2022an, eta % 0ra 2023an, 2024an eta 2025ean.

Ameriketatik (AEB, Kanada, Brasil eta Latinoamerikatik) datorren petrolio gordinaren ehunekoak gora egin du 2024koaren aldean (% 63).






Gasolia eta gasolina ekoizpenaren % 64 dira, 2024koen baliokide diren balioekin.


Hegazkinetarako kerosenoaren eta erregaiaren ekoizpena % 15 igo da 2024aren aldean.



- GASOLIOA % 44,73
- GASOLINA % 19,35
- KOKEA % 9,28
- NAFTAK % 7,49
- FUEL-OLIOA + GOV % 11,10
- PGL % 2,18
- PROPILENOA % 0,76
- KERO ETA KARB. ERREAKT. % 2,55
- ASFALTOAK % 1,37
- BESTE BATZUK % 1,19




BILBOKO PORTUA
PETRONORREN MUGIMENDUAK GUZTIRA




Europa osoak (EB, UK eta Gibraltar) esportazioen % 78 biltzen du.



Petronorrek % 47,6 handitu ditu inbertsioak; 2024an 147 M€-koak izan ziren.



Mantentze-lanetarako inbertsioak % 29 egin du gora 2024arekin konparatuta; orduan 48 M€ inbertitu ziren.



- SEGURTASUNA 7,6
 - BERRITZEA 7,9
 - DESKARBONIZAZIOA 95,5
 - AZPIEGITURA 4,9
 - DIGITALIZAZIOA 2,5
 - INGURUMENA 2,0
 - HIDROGENOA 30,7
 - BESTELAKOAK 4,6
- INB. GUZTIRA**
BESTELAKO ARLOETAN
155,3 M€



Deskarbonizaziorako inbertsioak (hidrogenoa barne) % 92 egin du gora 2024aren aldean; orduan 65,7 M€ izan ziren.

23

EKINTZA

OBJETIVOS
DE DESARROLLO
SOSTENIBLE

05 KLIMA
ALDAKETA 

03 BERRIKUNTZA
TEKNOLOGIKOA 

04 GIZA
BALIABIDEAK 

05 INGURUMENA 

03 ERAGIKETA
SEGURUA 

03 ETIKA ETA
GARDENTASUNA 

Petronorren 2025erako Jasangarritasun Planak 23 ekintza ditu, eta Nazio Batuen garapen jasangarrirako 17 helburuetatik 13 barne hartzen dituzte horiek. Planan jasotzen diren ekintza guztien % 90 baino gehiago burutu dira.

Lehiakortasunaren eta negozio berrien eragileak.





Eragiketa bikaina



Fidagarritasuna eta
mantentze-lanak



Giza baliabideak



Segurtasuna



Ingurumena



Berrikuntza



Inbertsioak



Kudeaketa-kontrola eta
finantza-sistema



Deskarbonizazioaren
ibilbide-orria

01 Eragiketa bikaina

2025ean, bikaintasun operatiboa sendotzen jarraitu du Petronorrek. Hala, segurtasuneko, efizientziako eta lehiakortasuneko funtsezko helburuak lortu, eta, aldi berean, hobekuntzak bultzatu ditu ezinbesteko prozesu operatiboetan.

2024an hasitako produktuen dibertsifikazio-estrategia finkatu da, eta biojet eragiketa iraunkorra mantendu da 2025ean zehar, biodiesela fabrikatzeko lehengai berrien koprosesatzearekin batera.

ZEROGAP programak, arlo operatibo guztien ikuspegi osoarekin, adierazleak hobetzen jarraitzea ahalbidetu du, batez ere ekoizpen-eskema eta -programak hobetzeari dagokionez.

Leiho operatiboen proiektuaren ezarpenean eta fidagarritasun-plan maisuen betetzean izandako aurrerapenari esker, instalazioen fidagarritasunaren hobekuntza finkatu da, programatu gabeko geldialdien maiztasuna eta inpaktua murriztuz, eta aise bete da gorabehera operatiboen kostuaren % 3ko helburua.



MEMORIA
2025



Lehiakortasunaren hobekuntza



Gorabeheren kostua: % 2



Programazioaren desbideraketa: <% 9



Eskemaren hobekuntza: >26M€

Programen hobekuntza



Plangintzako tresna aurreratua:



Scheduling – Programazioaren hobekuntza



Hileko balantzearen itxiera –
Izakinaren proiektzioa – Kutxako fluxuaren hobekuntza

Lehiakortasuna hobetzeko planaren lehentasunezko ildoetako bat izan da programak optimizatzea eta instalazioen erabilera/jarduera maximizatzea, merkatuaren baldintzetara egokituta.

Plangintzako tresna aurreratuak ("Rolling Plan"), 45 egunerako programazio-simulagailuak (Aspen Unified Planning), datu eguneratuekin eta prezioen eredu digitalekin integratuak, eta azken blending-era arte xehatutako programa (Aspen Unified Scheduling)... Horiei esker, programak asko betetzeaz gain, erabaki informatuagoak hartu ahal izan ditugu, izakinen iragarpen hobeeekin, produktuen batez besteko stocka murriztuz eta, horrela, kutxa-fluxuak hobetuz.

2025ean, energia-efizientziako eta eskema hobetzeko funtsezko bi proiektu garatu dira: preflash dorre berria 1. findegiko Petrolio Gordinaren Unitatean eta turbina bidezko konpresorea motor bidezko bategatik aldatzea HD3 unitatean. Bi proiektuekin, energia-efizientzia hobetzeaz gain, ekoizpen-eskema malgutzea lortu da, eta, horri esker, gordinen dieta askoz arinagoa eta marjina hobegokoa prozesatu ahal izan da. Aldi berean, gasolioen desulfurazio-unitatearen zikloak hobetu dira, cracking bidezko kargaren kantitatea eta kalitatea eta FCC unitatearen errendimendua hobetuz. Azken batean, merkatuaren aukerak atzemateko eta, horrela, marjina maximizatzeako prestatutako eskema da.

**Energia-efizientzia
eta deskarbonizazioa**

> 13M€

Urte anitzeko geldialdien kudeaketa hobetzen jarraitzen dugu, eta 2025eko geldialdien helburuen % 96 lortuta. Bigarren urtez jarraian, “egunik galdu gabeko zero gorabehera” izatea lortu dugu; orain arte aurrekaririk ez duen gertakaria da hori.

Makinen **fidagarritasuna hobetzeko**, lubrifikatzeko eta matxurarik ez izateko **planei** esker, gure erabilezintasun mekanikoa hobetzen jarraitu ahal izan dugu, bigarren urtez jarraian % 1etik behera baitago.

2025ean, ia 90 M€ inbertitu ditugu instalazioen mantentze-lanetan. Sentsorika eta monitorizazio bidezko ikuskapen-metodo eta -teknika berriak txertatu eta ezarri ditugu, findegiko ekipoetan gorabeherak prebenitzen jarraitzeko.

Efizientzia eta aktiboen osotasuna hobetzeko lanean jarraitzen dugu, gure enpresa kontratista laguntzaileekin elkarlanean aritzearen eta horien garapenean aurrera egitearen ikuspegitik. Ildo horretan, efizientzia hobetzeko hainbat lantalde eta pilotu garatu ditugu, inguruko enpresei garatzen jarraitzeko aukera emango dietenak.

Mantentze-lanetako
gastua 2025ean

> 90 M€

Petronorreko langileak enpresaren eraldaketaren erronketan inplikatzeko aldera, Aliatuak programaren 18 saio egin dira aurten. Langile guztiei egin zaie dei, proiektua partekatzeko eta taldean konpromisoa sortzeko.

Erakundearen talentua sartzeari dagokionez, urtean zehar, funtzio operatiboetan txertatzen joan dira prozesu jarraituko instalazio-operadore izateko ikastaroa amaitu duten 22 pertsonak —aurreko ekitaldian hasi zen, eta 9 hilabeteko prestakuntza izan da—. Era berean, 19 pertsona berri sartu dira kudeaketa, teknika edo *staff* postuetan. % 37 emakumeak dira, eta, hala, aurrera goaz kontratazioko parekotasuneranzko bidean. Hori guztia, nahiz eta emakumeak STEM karrera profesionaletara erakartzeko zailtasunak egon —karrera horietatik estaltzen ditugu lanpostu hutsak—.

Lidergo-prestakuntzari buruzko formatuak jarri ditugu abian, Liderren Eskolaren edo Giza Faktorearen Akademiaren bidez (segurtasuneko prestakuntza). Mantentze-lanetako kolektiboan foku garrantzitsua izan dute; izan ere, arduradunek pertsonak eta taldeak lideratzeko prestakuntza jaso dute, enpresa-eraldaketaren funtsezko ardatz gisa, eta talde osoak, berriz, egunerokoan eta ustekabeko egoera aldakorretan jarduteko gaitasunak garatu dituzte.

(* Kudeaketa, teknika eta *staff* postu berrietan sartutako emakumeen ehunekoa da % 37.

TALENTUA sartzea

22 operadore
19 postu kudeaketan
% 37 Emakumeak*

Hona hemen **lan-osasuneko** datu aipagarrienak:

IA SALUDIA tresnaren bidez **arrisku kardiobaskularra** goiz detektatzeko programari esker, 23 pertsona asintomatiko aukeratu ditugu azterketa koronarioa egiteko; horietatik 11k positibo eman dute, eta 5ek lesio koronario larriak zituzten (zuzendu egin dira).

Nutrizio-programa (nutrizionista bat), elikadura osasuntsuagoa izatea eta pisua galtzea sustatzeko, hori delako patologia askoren arrisku-faktore nagusietako bat. Pisua, oro har, % 11,20 galdu da.

Larrialdi medikoetarako lankidetzari buruzko berariazko prestakuntza 22 lagunentzat. Prozesu jarraituko instalazio-operadore izateko azken ikastaroan, 25 pertsonak hartu dute parte lan-osasunari eta lehen sorospenei buruzko prestakuntzan. Langile berriei harrera egiteko programaren barruan, 11 pertsonak hartu dute parte lehen sorospenei buruzko prestakuntzan.



1.054
KONTSULTA
MEDIKO



1.305
KONTSULTA
ERIZAINZAN



911
AZTERKETA
MEDIKO



PREBENTZIO
PROGRAMAK



PREBENTZIO
JARDUERA

2025ean, segurtasuna kudeatzeko eredu berri bat txertatu dugu, gertakari errealek eta potentzialen analisi dualean oinarritua. Arriskuarekiko esposizioa hobeto ulertzen eta arriskuok arintzea lehenesten laguntzen du.

Arrisku-piramide berriarekin, gertaera larrien aurretik egoten diren seinaleak identifikatu daitezke, prebentziozko kudeaketa sustatzen da, ekintzak modu eraginkorrean ixten dira eta ikasgaiak hedatzen dira, segurtasun-prozesuak eta -kultura hobetzeko.

1,28koa izan da **gutzizko maiztasun-indizea (IFT)** —baja behar izan duten eta behar izan ez duten istripuen kopurua zenbatzen du, lan egindako milioi orduko—. Emaitza horrek, sektore petrokimikorako Feiqueren 2025eko benchmark-arekin alderatuta (5,75), jarduera nabarmen handiagoa erakusten du. Horrela, Petronor maila nabarmen positiboan dago laneko segurtasunaren arloan.

Bestalde, 0,51koa izan da **gorabeheren maiztasun-indizea (TIER 1 + TIER 2)** —maila horietan definitutako atalasetara iristen diren prozesuko segurtasun-gertaerak neurtzen ditu, lan egindako milioi orduko—. Europako sektore petrokimikorako Concaweren benchmark-aren aldean (0,64), Petronorren emaitza erreferentzia-tartearen behealdean dago. Horrek agerian uzten du kontrol sendoa duela osotasun operatiboaren eta prozesuko arriskuen kudeaketaren gainean.



PIRAMIDE DE ACCIDENTALIDAD DE LOS TRES DIAMANTES

	Petronor	Benchmark sektoriala
IFT	1,28	5,75
PSIR TIER1+ TIER 2	0,51	0,64



2025ean, **CO2 murrizteko** helburuak lortu ditugu, 37.000 tona CO2 baino gehiago murriztuta. Urteko helburua 32.000 tona baino zertxobait gehiago murriztea zen. Eta horrela, 2019an emisioak murrizteko marraztu genuen bidean aurrera goaz.

Uraren kudeaketan, **Water Zero** programa dago. Ur freskoa ahalik eta modu efizienteanean erabiltzea, haren kontsumoa murriztea eta haren erabilera optimizatzea nahi dugu, beharrezkoa ez den “zero” kontsumora iritsi arte.

2025ean 1,8 milioi metro kubiko baino gehiago murriztu dugu **uraren guztizko kontsumoa**, hau da, % 10,6 murriztu dugu 2024arekin alderatuta.

BERRERABILITAKO URAREN GUZTIZKOA



% 24,8

CO2 EMISIOAK



-37,3Ktn



Jatorri biologikoko hondakinak sartzen jarraitu dugu gure prozesuetan. 2025ean, hondakin horien 273.620 tona txertatu dira. 2023an baino % 21,9 gehiago da hori. 201.792 tona gasolio-linean sartu dira eta 71.828 gasolina-linean.

Jatorri biologikoko hondakin horiek, Petronorrek ziurtagiria duen Jasangarritasun Eskemetan jasotzen diren baldintzak betetzen ditu. Ziurtagiriak **ISCC EU eta SNVS** dira (Jasangarritasuna Egiaztatze Sistema Nazionala).

Beste urte batez, eta dagoeneko 25 dira, Petronorrek **ISO 14001:2015** arauaren estandarrean oinarritutako ingurumena kudeatzeko sistemaren ziurtagiria mantendu du.

2025ean, boluntarioek Muskizeko udalerriko Mello mendian 2019an sute batek erretako azalera **basoberritzeko** egin dituzten ekintzetan parte hartzen jarraitu dugu. 2025ean, 30.000 metro karratuko azalera basoberritu da bertako espezieekin (haritzak, pagoak, gaztainondoak...). Muskizeko ikastetxeetako 600 ikaslek baino gehiagok hartu dute parte, eta, boluntarioekin batera, 1.00 zuhaitz baino gehiago landatu dituzte.

Sartutako lehengai berriztagarria

273.620 tn

4G/5G sare pribatua erabiltzeari esker, **digitalizazioarekin eta automatizazioarekin** lotutako hainbat berrikuntza teknologiko ezarri ahal izan dira:

- Gaur egun, hiru robot autonomo (AGV) daude. 1.000 misio baino gehiago bete dituzte. 50 ekipo birakari eta estatikoren datuak erregistratzen dituzte 10 prozesu-unitatetan.
- Analitika aurreratuko sentsorika-sistema bat garatu da ekipo birakarietan **mantentze-lan prediktiboak** egiteko. 500 audio-erregistro baino gehiago daude konplexutasun handiko ekipo dinamikoetan.

FCC unitateko denbora errealeko optimizatzailea lanean ari da, bai eta ekoizpena programatzeko prozesuan lehengaiak ebaluatzeko eta produktuak entregatzeko **eredu digitala** ere. 2,5 MW-eko elektrolizagailuan ekoiztutako hidrogenoaren jatorri-bermeak kontrolatzeko eredu digitalaz gain.

Hidrogenoa ekoizteko lurrin bidezko bi erreforma-laberen barne-hodietan **termografia** aplikatzeko aldaketak egin dira. Irudiak eta bideoa denbora errealean aztertu ahal dira, ahalmena eta efizientzia optimizatze aldera.

Instalazioko langileen ergonomia eta konektagarritasuna hobetzeko **sentsorika** eta telefono-gailuak daude.

Inbertsioa
digitalizazioan

2,5 M€

2025ean adimen artifizial sortzailearen hainbat kasu garatu dira, besteak beste:

- AGVen misioetan lortutako datuei esker, instalazioko aktiboen osasunarekin lotutako patroiak identifikatu ahal izan dira, adimen artifizialeko algoritmoen bidez haien bilakaera aztertuta, alderdi hauen monitorizazioa eta jarraipena egiteko:
 - Termografiak (erregogorraren bilakaera eta isolamendua, produktuen homogeneotasuna tangetan).
 - Inguruneko zarata (ekipo dinamikoen baldintza operatiboen aldakuntzak)
- Tangen termografien analitika aurreratua garatu da mailak detektatzeko eta balizko anomaliak iragartzeko. Adimen artifiziala aplikatu da gordin-tangetan ura dagoen jakiteko.
- IA sortzailearen lehen kasuei ekin zaie, langileen efizientzia eta produktibitatea hobetzeko helburuarekin.
- Segurtasun-eremuan chatbox pilotua garatu da, AK3 unitatearen hurrengo geldialdirako aurreikusia.



2025ean, inbertsio handia egin dugu; 217,7 M€-ra iritsi gara.

Inbertsio hauek dira aipatzekoak: deskarbonizazioa, hidrogenoa eta erregai sintetikoak (116,5 M€); mantentze-lanak (62,4 M€); segurtasuna (7,6 M€); azpiegiturak (4,9 M€) —horien artean laborategian egindakoak eta mantentze-instalazioen hobekuntza—; digitalizazioa (2,5 M€) eta ingurumena (2 M€).

Hori guztia gure lan-ingurunea hobetzeko, lan egiteko modu eta metodo berrietara egokitzeko eta etengabe aldatzen ari den findegi moderno baten irudia proiektatzeko.

Inbertsioak
2024-2025

364,5 M€

Deskarbonizazio-planaren esparruan, Petronor inbertsio handiak behar dituzten askotariko proiektuak ari da garatzen, eta, horregatik, finantzaketa-eredu berriak bilatu behar dira eskuragarri dauden funtsen erabilera optimizatzeko.

Zentzu horretan, Petronorrek Iberiar penintsulako lehen **Project Finance** ixtea lortu du hidrogeno-proiektu baterako. 40 milioi euro inguru lortu dira kanpoko finantzaketan. Horrez gain, 11,5 milioi euro lortu ditu mineralizazio-instalazioa finantzatzeko.

Dirulaguntzen esparruan, laguntza nabarmenena 160 milioi eurokoa da. 100 MW-eko elektrolizagailurako da, Europako Interes Komuneko Proiektu Garrantzitsu (IPCEI) izendatu baita hori. Horri gehitu behar zaizkio 10 MW-eko elektrolizagailurako lortutako 8 milioi eta mineralizazio-instalaziorako lortutako 4,2 milioi.

Sistema financiero



Desgravaciones fiscales



Financiación bancaria



Subvenciones



Partenariado



Fondos Propios



EFIZIENTEA

Egungo findegia efizienteagoa izatea eta kontsumoak eta emisioak murriztea.









EGUNGO UNITATEEN ALDAKETA

Bere balio-bizitza luzatzeko, karbono gutxiko produktu berriak sortuta.

INDUSTRIA PROIEKTU BERRIAK

Hidrogenoa, erregai berriztagarriak eta beste produktu deskarbonizatu batzuk ekoizteko.

2025ean, arlo bakoitzean, proiektu hauek sartu dira egikaritze-fasean:

-  Petronorreko **HD3 Hidrocracking Leunaren Unitaterako** konpresore berri bat jarri dugu martxan. VORECOM motako abiadura-erregulagailua duen motor elektriko batek eragiten dio. Egungo kondentsaziozko lurrun-turbina baino efizienteagoa da energetikoki. **20 M€**-ko inbertsioa egin da.
 -  1. findegiko Petrolio Gordinaren Unitatearen aurreberotze-treanean instalatutako **preflash dorre berri** bat ere jarri dugu martxan. Kontsumitzen den erregaia aurrezten du, eta, hala, energia-efizientzia hobetzen. **15 M€**-ko inbertsioa egin da.
 -  Azkenik, lurrun-turbinen ordez **motor elektrikoak** jarri ditugu, 1,5 M€-ko inbertsioarekin, eta 83 gas-erregailuren ordez teknologia efizienteagoko batzuk ipini ditugu, **2 M€**-ko inbertsioarekin.
-
-  **Gasolioen 4 desulfurazio-unitateetan** inbertitu dugu, jatorri biologikoko karga (landareak edo animaliak) eta karga fosil konbentzionala batera prozesatzeko egungo ehunekoak gehienez % 10 handitzea ahalbidetzeko. **4,6 M€**-ko inbertsioa egin da.
 -  Aurrera egin dugu **propano-propileno frakzioa bereizteko eta arazteko unitate berriaren** egikaritzean. Merkatu petrokimikorako, purutasun handiko polimero-mailako propilenoa sortzeko gai da. **58 M€**-ko inbertsioa egin da.
-
-  Petronorren findegitik harrapatutako hidrogeno berde eta CO2tik abiatuta zero emisio garbiko **erregai sintetikoak ekoizteko demostrazio-instalazioa** prestatzen hasi gara. **143 M€** inbertituko dira.
 -  Aurrera egin dugu **hondakinak ekoagregakinetan balorizatze**ko CO2a finkatzeko instalazioaren exekuzioan, Bilboko portuan. 2026ko Q2an martxan jartzea dago aurreikusita, eta **20 M€**-ko inbertsioa eragin du.
 -  Bilboko portuan **10 MW-ko elektrolizagailu** bat exekutatzeko hasi gara. 2026ko Q4an abiaraztea dago aurreikusita, **40 M€**-ko inbertsioarekin.

 **EFIZIENTEA**



**EGUNGO
UNITATEEN
ALDAKETA**



**INDUSTRIA PROIEKTU
BERRIAK**

Gobernantza

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

PRESIDENTEA

Emiliano López Atxurra jauna
KONTSEILARI DELEGATUA
José Gregorio Luque González jauna

KONTSEILARIAK

Juan Abascal Heredero jauna
Ana Beobide Laucirica andrea
Juan Antonio Carrillo de Albornoz Tejedor jauna
Juan Andrés Diez de Ulzurrun jauna
Pedro Fernández Frial jauna
Maximiliano Jacob Urruticoechea jauna
Andreu Puñet Balsebre jauna
Cristina Sanz Mendiola andrea
Roberto Velasco Barroetabeña jauna
José M^a Zalbidegoitia Garai jauna

IDAZKARI KONTSEILARIA

Jose Ignacio Zudaire Arana jauna

IDAZKARIORDEA

Raquel María Ruiz Juárez andrea

AUDITORIA BATZORDEA

PRESIDENTEA

Juan Andrés Diez de Ulzurrun jauna

KIDEAK

Pedro Fernández Frial jauna
Roberto Velasco Barroetabeña jauna

IDAZKARIA

José Ignacio Zudaire Arana jauna

ZUZENDARITZA

PRESIDENTEA

Emiliano López Atxurra jauna

KONTSEILARI DELEGATUA

José Gregorio Luque González jauna

KONTSEILARI DELEGATUAREN ONDOKOA

José Ignacio Zudaire Arana jauna

ZUZENDARI EKONOMIKO- FINANTZARIOA

Gonzalo Díez-Heppe González jauna

PERTSONEN eta ANTOLAKETAKO ZUZENDARIA

Ainhoa Rivera Azcoitia andrea

FIDAGARRITASUN, INGENIARITZA ETA MANTENTZE LANEN ZUZENDARIA

Oscar Gómez Cruz jauna

EKOIZPENEKO ZUZENDARIA

Matilde García Echevarría andrea

SEGURTASUN, INGURUMEN ETA KALITATEKO ZUZENDARIA

Xavier Fava Ibañez jauna

INGENIARITZAKO ZUZENDARIA

Elías Unzueta Etxeita jauna

BERRIKUNTZA ZUZENDARIA

Manuel Núñez Marcos jauna

Datu ekonomikoak


DATU EKONOMIKO FINANTZARIOAK EMAITZAK

MILIOI €	2025	2024	2023
NEGOZIO ZIFRAREN ZENBATEKO GARBIA	6.137,8	7.046,0	7.396,6
USTIAPENAREN EMAITZA	-52,3	48,4	327,2
EBITDA	93,7	151,1	428,6
EKITALDIKO EMAITZA	27,8	72,2	348,9



2025eko emaitza 27,8 M€ izanda, zergak barne.

FINTZE JARDUERA



PROPORTZIOA MERKATU
NAZIONALAREN ETA KANPOKOAREN
ARTEAN


● Nazionala ● Kanpoko

TONAK, MILAKOTAN	2025	2024	2023
SALMENTAK GUZTIRA (TONAK, MILAKOTAN)	8.954	9.976	9.522
MERKATU NAZIONALERA (%)	% 74,5	% 65,1	% 66,9
KANPOKO MERKATURA (%)	% 25,5	% 34,9	% 33,1

”

Petronorren esportazioek % 7,6 egin dute behera 2025ean.

DATU EKONOMIKO FINANTZARIOAK BALANTZEA




AKTIBOA GUZTIRA

	MILIOI €	2025	2024	2025/2024 ALD. %
AKTIBOA GUZTIRA		3.098	2.928	% 5,8
AKTIBO EZ KORRONTEA		1.642	1.563	% 5,0
AKTIBO KORRONTEA		1.456	1.365	% 6,6

”

Aktiboa guztira % 5,8 hazi, eta 3.098 milioi eurora iritsi da.

RATIO FINANTZARIOAK




ERABILITAKO KAPITALA

	MILIOI €	2025	2024	ALD. %
ZOR GARBIA		0,0	0,0	% 0
ERABILITAKO KAPITALA		2.076	2.101	-% 1,2
ZOR GARBIA/ERABILITAKO KAPITALA %TAN		% 0,0	% 0,0	% 0



Zor garbia zeroan mantendu da 2022-2025 aldian.

ERREFERENTZIA ESPARRUA FINTZE NEGOZIOARENA



BRENT DTD.

	MAGNITUDEA	2025	2024
	K		
5BRENT DTD. Urteko batezbestekoa	\$ / UPEL	69,10	80,76
BRENT DTD. Urte amaieran	\$ / UPEL	62,56	74,65
\$ / € Urteko batezbestekoa	\$ / EURO	1,129	1,082
\$ / € urte amaieran	\$ / EURO	1,176	1,039

”

BRENT DTDaren prezioa % 16,8 jaitsi da urteko batezbestekoan.

Eranskinak

LEHENGAIEN JATORRIA



2021ean % 24koa izan zen Errusiako lehengaien erosketa; 2023an, 2024an eta 2025ean % 0koa izan da.

JATORRIA	2025		2024	
	TONAK	%	TONAK	%
ERRUSIA	0	0	0	0
KAZAKHSTAN	320.534	4	215.024	2
MEXIKO	2.310.919	28	2.014.189	21
IPAR ITSASOA	164.589	2	713.670	8
MENDEBALDEKO AFRIKA	973.339	12	1.213.999	14
EKIALDE HURBILA	369.923	4	696.566	7
VENEZUELA / BRASIL	2.992.133	36	3.584.325	36
AFRIKAKO IPARRALDEA	299.461	4	612.561	5
KANADA ETA ESTATU BATUAK	938.613	11	773.500	8
BESTE JATORRI BAT	0	0	0	0
GORDINAK, GUZTIZKO PARTZIALA	8.369.511	100	9.823.834	100
BESTE LEHENGAI BATZUK	348.755		238.632	
GUZTIZKO OROKORRA	8.718.266		10.062.466	

EKOIZPENAREN LABURPENA




Merkatuaren bilakaeraren ondorioz, 2025ean gasolioaren ekoizpenak 1,48 puntu egin du behera, eta gasolinarenak, berriz, 1,67 puntu egin du gora.

PRODUKTUA	2025		2024	
	TONAK	%	TONAK	%
GASOLIOA	3.677.729	44,75	4.400.570	46,23
FUEL-OLIOA+GOV	912.	11,10	1.360.774	14,30
GASOLINA	1.590.904	19,35	1.683.211	17,68
NAFTAK	615.556	7,49	604.168	6,35
ASFALTOAK	112.982	1,37	142.079	1,49
PGL	179.554	2,18	178.589	1,88
PROPILENOA	62.645	0,76	65.185	0,68
KERO ETA KARB. ERREAKT.	209.404	2,55	181.418	1,91
KOKEA	762.576	9,28	790.858	8,31
BESTE BATZUK (*)	97.928	1,19	111.362	1,17
GUZTIRA	8.220.254	100	9.518.214	100

(*)Barne hartzen ditu sufrea eta karbono dioxidoa

ENERGIA ELEKTRIKOA

GWH	2025	2024
SORTUTAKOA	541,6	533,6
KONTSUMITUTAKOA	626,8	648,0



SORTUTAKO ENERGIA

541,6 GWH

”

Sortutako energiaren ratioa % 86,4koa da, kontsumitutakoarekin alderatuta.


”

2024an % 45,1 handitu ziren inbertsioak, eta 2025ean % 48,6.

INBERTSIOAK

MILIOI €	2025	2024
BERRITZEA	7,9	12,2
AZPIEGITURAK	4,9	5,9
INGURUMENA	2,0	3,2
SEGURTASUNA	7,6	8,2
DIGITALIZAZIOA	2,5	2,8
DESKARBONIZAZIOA	53,0	49,3
HIDROGENOA	30,7	16,5
ERREGAI SINTETIKOAK	32,8	21,5
BESTE BATZUK	4,6	0,8
GUZTIRA (mantentze-lanik gabe)	155,3	98,9
MANTENTZE-LANAK	62,4	47,9
GUZTIRA	217,7	146,8

MUGIMENDUAK ITSASOKO TERMINALEAN




SARRERAK (t)	2025	2024
GORDINA	8.379.727	9.769.562
BESTE LEHENGAI BATZUK	252.150	133.117
GUZTIZKO PARTZIALA	8.631.877	9.902.679
BESTE PRODUKTU BATZUK	213.943	83.181
SARRERAK GUZTIRA	8.845.820	9.985.860
IRTEERAK (t)		
ESPORTAZIOA ETA KABOTAJEA	2.552.192	3.255.709
MUGIMENDUAK GUZTIRA	11.398.012	13.241.569



Itsasoko terminaleko mugimendu guztiak % 13,9 murriztu dira.

LABURPENA MERKATUAK



- MERKATU NAZIONALA
- KANPOKO MERKATUA


ERREGAIEN SALMENTA

ERREGAIEN SALMENTA	2025		2024	
	TONAK	%	TONAK	%
MERKATU NAZIONALA	6.671.640	% 74,5	6.493.719	% 65,1
KANPOKO MERKATUA	2.282.407	% 25,5	3.482.781	% 34,9
GUZTIRA	8.954.047	% 100	9.976.500	% 100

”

Erregaien guztizko salmenta % 2,7 igo da merkatu nazionalean. Oстера, kanpoko merkatura egindako salmentak % 34,4 murriztu dira.

MERKATUAK NAZIONALA ERREGAIENA



ERREGAIEN SALMENTA


- REPSOL SOLUCIONES ENERGERÉTICAS S.A.
- REPSOL FUELS, S.A.
- REPSOL LUBRICANTES Y ESPECIALIDADES S.A.
- REPSOL BUTANO, S.A.
- BESTE OPERADORE BATZUK

MERKATU NAZIONALEKO SALMENTAK BEZEROKA	2025		2024	
	TONAK	%	TONAK	%
REPSOL SOUCIONES ENERGÉTICAS S.A.	2.541.313	% 38,1	2.447.698	% 37,7
REPSOL FUELS S.A.	2.232.557	% 33,5	2.087.980	% 32,1
REPSOL LURICANTES Y ESPECIALIDADES S.A.	118.230	% 1,8	166.137	% 2,6
REPSOL BUTANO S.A.	167.720	% 2,5	198.538	% 3,1
BESTE OPERADORE BATZUK	1.612.214	% 24,2	1.593.366	% 24,5
GUZTIRA	6.671.640	% 100	6.493.719	% 100



Erregaien merkatu nazionaleko guztizko salmentak % 2,7 igo dira, eta bezeroen araberako banaketa 2024koaren parekoa da.

MERKATU NAZIONALA PRODUKTUEN ARABERA



- GASOLIOAK
- GASOLINAK
- FUEL-OLIOAK
- ASFALTOAK
- LPG
- SUFREA
- KEROSENOA
- KARBONO DIOXIKOA
- KOKEA


PRODUKTUEN SALMENTA



Gasolio eta gasolinen salmentak guztizkoaren % 78 dira; 2024koa baino ehuneko handiagoa da hori (% 73,4).

SALMENTAK	2025		2024	
	TONAK		TONAK	
GASOLIOAK	4.008.385	% 60,1	3.792.696	% 58,4
GASOLINAK	1.192.045	% 17,9	972.354	% 15,0
FUEL-OLIOAK	648.842	% 9,7	833.218	% 12,8
ASFALTOAK	86.408	% 1,3	105.188	% 1,6
LPG	118.230	% 1,8	166.137	% 2,6
SUFREA	80.912	% 1,2	95.464	% 1,5
KEROSENOA	221.639	% 3,3	166.727	% 2,6
KARBONO DIOXIKOA	16.010	% 0,2	21.048	% 0,3
KOKEA	299.169	% 4,5	340.886	% 5,2
GUZTIRA	6.671.640	% 100,0	6.493.719	% 100,00

KANPOKO MERKATUA PRODUKTUEN ARABERA



- FUEL-OLIOAK
- GASOLINAK
- NAFTAK
- LPG
- GASOLIOAK
- KOKEA
- ASFALTOAK


PRODUKTUEN SALMENTA



*Gasolio eta gasolinen salmentak % 33,3 izan dira;
2024an % 49,4 izan ziren.*

SALMENTAK	2025		2024	
	TONAK	%	TONAK	%
FUEL-OLIOAK	369.419	% 16,2	566.873	% 16,3
GASOLINAK	501.262	% 22,0	795.423	% 22,8
NAFTAK	587.896	% 25,8	611.605	% 17,6
LPG	84.416	% 3,7	69.515	% 2,0
GASOLIOAK	256.954	% 11,3	926.212	% 26,6
KOKEA	458.786	% 20,1	481.423	% 13,8
ASFALTOAK	23.676	% 1,0	31.729	% 0,9
GUZTIRA	2.282.409	% 100,0	3.482.781	% 100,0

ESPORTAZIOA MERKATUEN ARABERA



- EUROPA
- AEB
- AFRIKA
- ASIA
- ERDIALDEKO AMERIKA /KARIBEA
- UK
- GIBRALTAR
- HEGO AMERIKA

ESPORTAZIOEN HELMUGA



Europa osoak esportazioen % 78 biltzen du.

HELMUGA	2025		2024	
	TONAK	%	TONAK	%
EUROPA	1.680.882	% 74	2.464.577	% 71
AEB	151.971	% 7	234.196	% 7
AFRIKA	124.268	% 5	156.990	% 5
ASIA	151.203	% 5	115.328	% 3
ERDIALDEKO AMERIKA /KARIBEA	0	%0	0	%0
UK	71.921	% 3	382.846	% 11
GIBRALTAR	30.106	% 1	79.120	% 2
HEGO AMERIKA	72.058	% 3	49.723	% 1
GUZTIRA	2.282.409	% 100,0	3.482.781	% 100

SORTUTAKO ZERGAK

1.296 M€

SORTUTAKO ZERGAK

”

2024. eta 2025. urteen artean, Petronorrek sortutako zergak 2,662 M €-ra iristen dira.

OGASUNEI EGINDAKO ORDAINKETAK 2025EAN MILIOI €

BIZKAIKO FORU OGASUNA	743
BESTE OGASUN BATZUK	545

UDALEI EGINDAKO ORDAINKETA 2025 MILIOI €

TOKIKO ZERGAPETZEA GUZTIRA	8
GUZTIRA, SORTUTAKOAK	1.296

